

Jesusa Madariaga Oar

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1915-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Jesusa Madariaga Oar 1915eko urtarrilaren 17an jaio zen, Foruko Baldatika auzoan (Bizkaian). Oso gazterik Forutik Bilbora joan zen neskame, 13 urterekin. Ondoren Zarautza ezkondu zen, 26 urterekin, eta harrezkero Zarautzen bizi zen. 40 urterekin alargundu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Arrain-saltzailea izan zen lanbidez. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Zintak

ZAR-112

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Silban Iturburu, Leire
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 16 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Silban Iturburu, Leire

Pasarteak

1. Gernikako bonbardaketa

- **Erref:** ZAR-112/002
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaian, Lezaman egon zen lanean neskame. Eta handik ikusten zuen Gernikatik ihesi zebilen jendea. Gernika bonbardatu zuten egunean zer egin zuen kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Gerra denboran non zeunden? Nola jakin zenuen Gernikan gertatutakoa?
- Gerran... ba... gu, Bilbotik ni neskame neon seiñorak eta bildurtu, ta Bilbotik jun giñan Lezama. Lezaman... Etxe, etxe batea ta han bizi giñan, eta han, ba, ikusten gendun Gernika nola pasatzen zian jente dana burdiyakín, ta beyakín, ta oilluakín ta dana; gaixuak, umiak eta karruan. Ta danak ibiltzen zian, ta gure pena!... Danak ihesika, danak ihesika, eta geo esan zuen, ba, Gernaika bonbardeau zuela. Ta geo Gernikan gauian ikusi gendun sua, suan resplandoria ikusi gendun, eta ene... dana bildurtuta Gernika dana erreta, sutan zeola, ta gure familiya, ze nola astelehena zan, astelehenian danak juten zian ferira eo plazaa gauzak saltzea. Ta nik esaten nun “ene... nere ahizpa jungo zan,e ta han harrapatuko zun”, ta nere kezka zer zan han zeozer pasako zitzakoan. Ta gero in nun, seiñorak esan zian, ba, juteko, juteko oiñez juteko, ta nola jungo nitzan oiñez? Ta, ba, letxerua zegola goizeko bostetan Lezamatik Larrabezuaraiño, letxerua zeola, letxero hartan jun nintzan, Larrabezuan zeola letxerua. Ta Lezamatik Larrabezura jun nintzan oiñez goizeko bostetan; ta geo Larrabezuan hartu nun, zea, letxerua ta jun nintzan Morgaraiño letxeruakin. Ta gero Morgan, letxeruak utzi zian Morgan; ta ez nekin nundik jun, ze illuna zeon, oaindikan seirak eo, ta illuna zeon; ta in nun, ba, bildurtu, baten baten txakurrak edo zaunka in ta gizonen batek lapurra naizelakuan tiro botako ditelakuan, eta eguna in arte sagar baten azpian egon nintzen. Ta geo eguna in zunian, ba, baserriyan aurrian bidetxu bat ikusi nun, ta handik tapa-tapa-tapa bide txiki batetik tapa-tapa-tapa jun nitzan Errobeitira. Errobeitin ahizpa nakan ezkonduta, eta hua bixitatu nun, ta kuiñaua moruak ez dakit ze in ziyoela, ta bai in ziyoela, gaixo zeon. Ta geo handik jun nitzan etxea, eta etxean billatu nun ama ta ahizpa. Geo esan niyon amai: “Ama, zeñek daka errua Gernika erretzia?”, ta “Ez dakit, ume. Gure

jaungoikoak indako lelengo herria Euskal Herriya da” esan zian amak. Eta geo, ba, holaxe eon nitzan han egun batian, ta atzea atzea bueltatu, ta Bilbora jun nitzan.

2. Zarautzen arrandegia jarri

- **Erref:** ZAR-112/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Zarautzera etorri zenean, senarraren jorrala nahikoa ez zenez, arrandegia ireki zuen. Etxeko egoera ekonomikoa hobetu zenean, ordea, senarra hil zen, eta lan asko egin behar izan zuen. Gehien gustatzen zaiona inork berari ez agintzea da. Orain ondo bizi da, baina osasuna ahuldu egin zaio.

Transkripzioa

- Ta hemen ze lan egin dezu? Ze lan mota egin dituzu Zarautzea etorri zihanetikan?
- Ba, ezkondu nitzanian, ba, etxekolanak. Ta geo, gizonak ekartzen jorralakin ezin aillatu, pobre, ta neuk beste illoba batekin arraindeya jarri nun. Ta arrai-saltzen, eta geo arraya saltzen ta pixkat bizitzen hasi giñanian, gixona hil. Ta gixona hil ta geo, ba, lan asko in bihar: goizian lau t’arditan jaki eta zortzirak arte ofizina garbitzen, ta zortzitan plazaa... ta lan asko in bihar.
- Horixe. Orduan zuk lan asko in dezu? Zein dezu gehiena gustatu zaizuna hola?
- Nik kaleko lana nayo baserrikua baiño.
- Bai, baiña arraindeya o neskame o ze nayo dezu?
- Arraindeya, nere kontua. Hua iñork ez zian agintzen, ta neskame seiñorak aintzen zuen.
- A, hark iten zun guztiya in bihar?
- Bai, ba.
- Ta oain zer moduz bizi zea? Gustoa o?
- Oain ondo, oso ondo, baiña oain zahartu in naiz; ta orain jaten badet, gaixotu iten naiz. Ta gustatu iten jaten. Ta ibiltzen nekatu. Ta, oain ondo bizi naiz. Baiña nik hau lehen ber nun, gatzia nitzanian, ondo bizitzia. Oain akabo!

3. Euskara Zarautzen

- **Erref:** ZAR-112/006
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Zarautzen beti egin izan da euskara asko, baina orain gehiago, eskolan ere euskaraz ikasten baita. Bizkaitarra izanda, ondo ikasi du Zarauzko hizkera, senarrak eta koinatak erakutsita. Barre egiten zioten bizkaiera egiten zuenean.</p>

Transkripzioa

- Eta esan dezu, orduan, eboluzionatuz jun dala. Eta euskera're bai?
- Euskera? Ez dakit, nik gutxi entenditzen det euskerakin. Baiña nik ez dakit, euskeraz Zarautzen beti in izan da asko, beti in da. Oain gure umiak txikiya zanian baiña oain geyo eiten da euskeraz asko're. Ze gure umiak txikiya zanian, gutxi hitz eiten zan euskeraz. Hermanuetan ibiltzen ziran gure mutillak, eta Hermanuetan dana erderaz eiten zan. Eta guk euskeraz eiten gendulako etxian, ba, euskeraz ikesi zuen. Baiña oain euskera geyago eiten da lengo aldian.
- Oain euskera iteko, hola, libreo dia ez? Leno, adibidez, hor Hermanotan ta hori dana erderaz in berko zuen?
- Dana erderaz egiten zuen.
- Ta oain ikastolakin ta askoz hobe ezta?
- Askoz hobe, oain euskera geyago.
- Aizu, ta euskeraz hitz eiten, zu Bizkai aldekoa ze, ta nolatan ikasi zendun gipuzkera horren ondo hitz eiten?
- Ez det ondo eiten gipuzkuan nik oaindikan.
- Bai...
- E, oindikan ondo ez det egiten gipuzkoako. Baiña neri iñok esaten zien: "Zu ze, bizkaitarra al ze?" ta "Bai"; "Ba, ez dezu ematen bizkaitarra. Zuk euskera ondo iten dezu, hemen bezela iten dezu" esaten zien ta. Bai... baiña ez dakit, gixona hemengua nun, ta gixonakin ta. Geyena ikesi nun koiñatakin ta gizonan amakin, ze hoiek hemengo hizkera eiten zuen, ta erderaz ez zekiye hoiek, koiñatak eta zeak ez zekiye erderaz, ta guk erremeyo gabe euskeraz. Ta koiñatak nei gaizki hitz eiten nunian, bizkaitar bizkaitar hitz eiten nunian, koiñatak burla iten zian: "Hori hola ez da esaten, hola esaten da".
- Orduan ikasi in ziñun?
- Klaro.
- Ez burla egiteko.
- Eske, ez, ba. Neri koiñatak esaten "Hori hola ez da esaten, hori hola esaten da". Horregaitik geyo ikesi nun nik, ze hoiekin ez zeon erderaz egiteik. Nik gixonakin erdera asko eiten nun lelenguetan, haik eta ikesi arte, ze ez niyon entenditzen.

4. Erregeen opariak eta diruaren balioa

- **Erref:** ZAR-112/007
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:15:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Neskameak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>11 urtera arte erregeak esistitzen zirela sinetsi izan zuen. Erregeak gurasoak zirela nola konturatu zen kontatzen du. Erregeek emandako diruarekin zer erosi ahal izaten zuen. Orduan diruak zer balio zuen azaltzen du. Neskame zegoela irabazten zuen dirua amari ematen zion. Jesusaren iritziz, hobe da ahalik eta beranduen igaro heldu izatera.</p>

Transkripzioa

- Eta kontatuko, horrela, gertatu zitzaizuna, adibidez, erregiak edo nola jakin ziñuten, erregiak nola zian?
- Hori leno esan ber nun. Nik hamaika urte arte erregiak ziala uste nun, gauzak ekartzen zitunak, ze beti urtero jartzen zian zeozer; aunke pobriak izan, urtero jartzen zian zeozer. Ta hamaika urtekin'e erregiak ziala uste nun, ez nun uste ama ta aita zianik. Eta jarri zizkian azken hamaika urte nitunian, zapata jarri nun balkoian, eta bi pezeta ta naranja bat. Eta ordun, naranja jan, ama gaixo euki nun, ta nik amai naranjak ekartzen jateko; ta nik'e naranja jaten nun amak emanda. Ta gero ni naranja jarri zienian zapatian, ta naranja jan nun, esan nun: "o! Hau aman naranja da! Hau erregiak ez du ekarri!" Ta "Ez, erregiak ez dia: ama da erregia, ama da erregia" esan zian. Ta ordu arte ez nekin erregiak... zea, ama ta aita zianik erregiak, eta hamaika urtekin enteratu nintzan ama ta aita ziala erregiak.
- Ta triste jarri ziñan jakitian aita eta ama zirala jakitian? Ilusiyo geyo ematen zizun...?
- Ez, ez, ez, bi pezta ordun asko zan, ta gustoa nintzan nere bi peztakin. Ta bi pezeta hayekin gorde eiten giñun, ze Aste Santuan, santuak santuak esaten gendun prozeziyuari, eta Santuak ikustea juten giñan Gernika. Ta Santuak ikustea juten giñanian, ba, errial batekin gauza asko erosten zendun, errial batekin. Erosten nun nik karamelozko txoriya, karamelozko txori bat, txupa txus bezela, karamelozko txori bat, hua jaten, naranja bat, ontza bat txokolate, errial batekin erosten gendun. Eta goizian lanak ein, arratsaldian Santuak ikustera juten giñen Gernikea txikiyak giñanian'e gu.
- Ba, orduan gauzak asko garestitu dia, porke oain pezta batekin ya ezer ez dakazu.
- Ez, baiña ordun, ba, errial batekin gauza asko zeuden. Ni akordatzen naiz, zea zan, karamelozko txoriya izaten zan ordun... eta karamelozko txoriya hua erosten gendun, ta gustoa ibiltzen giñan geure dirua gastatzen. Amak erriala ematen ziun, bi pezta haiek amak amanak jasoko zitun; niri jarri bai zapatan, baiña amak jasoko zitun, ni ez naiz akordatzen nazkanik bi pesta haiek, eta amak berko zitun eta, ni neskame jundako dirua're amak ber zun ta, gaixuak eta, pobriak zian ta. Len baserriyak ez zun ematen oain bezela... Len ez zan saltzen esneik eta ez zan saltzen oain bezela ta, ordun pobriak eta... ni neskame neola're, nere, ordun urtian kobratzen zan, ta urtia pasatakuan, ahizpak kobratzen zitun nere diruak'e, dirua ber da baserriyan e. Ta horregatik, ba, nik beti neskame, nere denboa guztiyan neskame, ta akabo.
- Ordun zuk lana iten zendun, ta zuk ateratzen zendun dirua bilatzen zendun etxea, baserrirako?
- Klaro, baserrirako. Nik irabazten nuna haientzako; haiek ber zuen ta. Ta beste anai bat morroi nakan, haua baserriyan morroi, ahizpakin zeon hua, ta hua ezar ez. Bestiak'e, ni ez naiz akordatzen, gure etxian hamar senidetatik, ez naiz akordatzen "más que, más que" hirukin. Hiru etxian, hiru bakarrik ezautu ditut etxian. Eta beste danak ya ezkondata: ni jayo baiño lenao zarrena ezkondu zan, ta bigarrena're bai, ta hirugarrena ni jayo ta geo, eta holaxe. Nere bizimodua holaxe izan da. Ondo tristia.
- Zuk jakin ziñun ordun erregiak hamaika urtekin, ezta?

- Bai, hamaika urtekin.
 - Eta oain normalian jendiak askoz'e lenuo jakiten du, ez?
 - Jesus! Oain ya zazpi urteko badakiye, aita ta ama dianik leno're jakingo due.
 - Bai, eta orduan zuk zer nahiko ziñun: beranduo jakitia... Zer da hobe: hobe ala lenuo hobe?
 - Hobe berandu jakitzia.
 - Beranduo?
 - Klaro, ze zu gazteik, umetatik ertetzen bazea gazteik, hamalau urteako zartu zea. Ta zu zartuta, ume baldin bazabe zar, haik eta hamar urte arte eo, zeure burua ume, ba, geo eiten zazu, ba, zeago, motxago, hamar urtetik hoge urtea're motxao. Baiña zu zortzi urtekin o hasten bazea neska haundiya, ta ya pentsatzen haundiya naizela, hoge urte arte luze egiten zaizu, ta aspertuta zaude danakin hoge urteako. Zenbat eta beranduu zertu, hobe asko're.
 - Gaiña esaten due txikitatikan jakin ezkeo ez dila erregiak erregaluak ekartzen dituenak, ilusiyo pixka bat kendu iten duela. Erregaluak jaso arren, ta gustoakin jaso, ba, ilusiyua beti're pixkat galdu iten dala.
 - Gutxiyo, asko're ilusiyua gutxiyo askoz'e.
 - Ta gurasoantzako're ilusiyua bezela izango da, ez? Umiak jarri ta hoyek ikustia erregiak dila ta.
 - Bai, ba. Bai, ba. Gabian gorde eziñik eta. Boltsak eta miatzen ta ibili, ta nun gorde jakin ez, ta holako gauzak txikitan. Ez do.

5. Gabonak

- **Erref:** ZAR-112/008
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:15:17. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Neskameak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabonetan eta Santa Ageda egunean etxez etxe joaten ziren kantari. Gabonetan zer jaten zuten azaltzen du. Gabonetan eta festetan bakarrik joaten zen etxera oporretan, Bilbon neskame zegoen bitartean.</p>

Transkripzioa

- Eta Gabonetan ta, atez ate kantatzen juten al ziñazten orain bezela?
 - Bai, kantatzen gendun, ta etxerik etxe, baserrik baserri, ta basarriyak urrutik eta ibiltzen giñan. Eta geo, ba, Santa Ageda egunian'e bai, Santa Ageda kantatzen'e bai ibiltzen giñan. Danian ibiltzen giñan.
 - Eta Gabonetan ta horrela, ze afari ta iten ziñuen?
 - Ba... Gabonetan, ba eiten gendun, oriyo aza aurrena, aurreneko platua, oriyo aza; eta geo bakaillua, ta intxaur-saltza. Ordun ez zan turroirik eta otxokuartoik; ez zan ordun turroirik, eta ez zan diruik eta etxian zeon gauza. Eta Gabonak earki pasatzen. Ni neskame eoten nintzanian urtero-urtero Gabonetan etxea juten nitzan, urtero-urtero.
 - Ya gogua eukiko zendun familiya're ikusteko?
 - Gustoa etxea, Gabonak etortzeko etxea juteko, ze gabonetan eta festetan bakarrik juten nitzan, urtian bitan bakarrik juten nintzan etxea Bilbotik.
 - Festetan. Eta festak noiz ziran ba?

- Festiak? San Bernardo egunian, abuztuan, abuztuan hogeyan.
- Ta ze moduzko festak eiten dia?
- Oso, ba, baserriko kontuak. Ordun ez zan tanboliñik eta otxokuartoik; bazkaiak eta inbitauak, eta akabo; besteik ezer ez.
- Baiña festa polita, ezta?
- Bai, jateko. Astian ez zan jaten, ta jayetan ondo jaten zan, eta jateko poza.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com